

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GUARDIAKO UDALA

#### **Behin betiko onestea Guardiako esparru turistikoetan sartzeko prezio publikoa arautzen duen ordenantza**

Udalbatzak, 2019ko azaroaren 14ko bilkuran, hasierako onespena eman zion Guardiako esparru turistikoetan sartzeko prezio publikoa arautzen duen ordenantzari.

Espedientea jendaurrean egon den bitartean -2019ko abenduaren 11ko ALHAOn, asteazkena (142. zk.), argitaratu zen hari buruzko iragarkia- ez denez erreklamaziorik aurkeztu, behin betiko onesten da ordenantza hori, eta indarrean dauden xedapenek arautzen dutena betez, osorik argitaratzen da haren testua:

#### **ESPARRU TURISTIKOETAN SARTZEKO PREZIO PUBLIKOA**

##### **1. artikulua. Kontzeptua**

Bat etorri Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legeak 117. artikuluan, lege beraren 41. artikuluaekin lotuta, xedatutakoarekin, udal honek esparru turistikoetan sartzeko prezio publikoa ezartzen du, zeina ordenantza honek arautuko baitu.

##### **2. artikulua. Ordaindu behar dutenak**

Guardiako (Araba) esparru turistikoetara sartu nahi duen orok ordaindu beharko du ordenantza honetan araututako prezio publikoa.

##### **3. artikulua. Zenbatekoa**

1. Ordenantza honetan araututako prezio publikoaren zenbatekoa izango da hurrengo paragrafoan jasota dauden tarifetan finkatzen dena.

2. Prezio publikoen tarifa hau izango da:

- Helduen sarrera (pertsonek bakoitzak ordaintzekoa):
- Erregeen Andra Mariaren eliza: 3 euro.
- Abade dorrea: 2 euro.
- Urmael zeltiberiarra: 4 euro.
- “Casa Garcetas” lurpeko upeltegia (turismo bulegoa): 2 euro.
- Done Joan Bataiatzailearen eliza: euro 1.
- Ikastaldean sarrera (prezioa pertsonako):
- Erregeen Andra Mariaren eliza: 1,50 euro.
- Abade dorrea: 0,75 euro.
- Urmael zeltiberiarra: 1,50 euro.
- “Casa Garcetas” lurpeko upeltegia (turismo bulegoa): 0,75 euro.
- Done Joan Bataiatzailearen eliza: 0,75 euro.

- Taldeen sarrera (prezioa pertsonako):
- Erregeen Andra Mariaren eliza: 2,50 euro.
- Abade dorrea: 1,50 euro.
- Urmael zeltiberiarra: 3,50 euro.
- “Casa Garcetas” lurpeko upeltegia  
(turismo bulegoa): 1,50 euro.
- Done Joan Bataiatzailearen eliza: 0,75 euro.
- Bisitak doan dira 10 urtetik beherakoentzat, ikastaldeen kasuan izan ezik.

#### **4. artikulua. Ordaindu beharra**

1. Ordenantza honek xedatzen duen prezio publikoaren ordaindu beharra sortzen da bertan adierazitako esparru turistikoetara sartzean.

2. Prezio publiko hori esparrura sartzen den unean bertan ordainduko da, eskudirutan, eta ordaintzean sarrera zenbakitua jasoko da, non azalduko baitira kontzeptua, eguna eta zenbatekoa.

Azken xedapena

Zerga ordenantza hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta hala jarraituko du berariaz aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Guardia, 2020ko urtarrilaren 20a

*Alkate-lehendakaria*

**LUCIO CASTAÑEDA MARTÍNEZ DE TREVIÑO**